5.- El mobiliario en general se deberá mantener siempre en buen estado de conservación.

6.- Tanto en las nuevas solicitudes como en las peticiones de renovación se deberá indicar las características del mobiliario que se va a instalar, así como de los elementos de goma de los apoyos del mobiliario, el cual deberá recibir el visto bueno de los servicios técnicos municipales

**13. Artikulua.- Publizitatea.**

1.- Eguzkitako eta toldoetan soilik jarri ahal izango da publizitate komertziala, eta oso txikia izan beharko du, ikusizko inpaktu negatiboa saihesteko.

2.- Debekatua dago kanpoko iragarkietan alkoholdun edarien eta tabakoaren iragarkiak egitea. Kanpoko iragarkitzat hartuko dira erabilera orokorrekoak diren guneetatik doazen edo gune horietan dauden nahiz leku irekietan dauden pertsonen arreta irudiaren edo soinuaren bidez erakartzeko gai diren iragarkiak. Hori guztia, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilak 7ko 1/2016 Legean xedatutakoaren arabera.

**Artículo 13.- Publicidad.**

1.- Únicamente podrá colocarse publicidad comercial en las sombrillas y toldos y deberá ser de tamaño muy reducido, a fin de evitar el impacto visual negativo.

2.- Queda prohibida la publicidad exterior de bebidas alcohólicas y tabaco, entendiendo por tal aquella publicidad susceptible de atraer, mediante la imagen o el sonido, la atención de las personas que permanezcan o discurran por ámbitos de utilización general o en lugares abiertos, todo ello en conformidad con lo dispuesto en la Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.

**14. Artikulua.- Jar daitezkeen gehienezko mahai eta aulkiak.**

Establezimendu bakoitzari, gehienez ere, 20 elementu instalatzeko baimena emango zaio (mahai, kupel eta mahai altu guztiak barne), eta gehienez 4 aulki mahai bakoitzeko. Baimendutako elementu eta aulki-kopurua jarriko da, ez gehiago. Edozein aldaketa egiteko, eskabide berria egin eta dagokion baimena eskuratu beharko da.

**Artículo 14.- Número máximo de mesas y sillas a instalar.**

El número de elementos a instalar (entre mesas, barriles y mesas altas o similares) por establecimiento autorizado será como máximo de 20, que conllevará la autorización para la instalación de 4 sillas máximo por mesa. Se colocarán exclusivamente el número de elementos autorizado. Para cualquier cambio, se deberá presentar una solicitud y obtener la correspondiente autorización.

**15. Artikulua.- Instalazioaren titularraren betebeharrak.**

1.- Zarata.

Instalazioaren jabeak, gainontzeko auzotarrek lasai egoteko dute eskubidea zainduko du, eta ez du iskanbila, borroka edo/eta zaratarik onartuko, arreta berezia ipiniaz 23.00etatik aurrera.

Adierazitako instalazioen funtzionamenduak ezingo die transmititu ez etxebizitzei ezta bestelako bizitegiei eta kanpo-inguruneei ere ezarritako gehieneko zarata-maila gainditzen duen zaratarik.

Titularrarena da terraza ixteko obligazioa bezeroek inguruko bizilagunei eragozpenak sortzen badizkiete; baita terrazarako baimendutako esparru horretatik kanpo bezeroei kontsumizioak ateratzen ez uztea ere.

Terrazetan ez da inolako musika-aparaturik, bozgorailurik eta abarrik jarriko. Zuzeneko emanaldiak guztiz debekatuta daude terraza-espazioetan, baita ikus-entzunezkoen ekipoak jartzea edo audio zein bideo emanaldiak egitea ere, Udalak horretarako

**Artículo 15.- Obligaciones de la persona titular de la instalación.**

1.- Ruido.

La persona titular de la instalación velará para que se respete el derecho a la tranquilidad del resto del vecindario, por lo que no permitirá escándalos, riñas y/o ruidos en general en la instalación, con especial atención a partir de las 23:00 horas.

El funcionamiento de las instalaciones expresadas no podrá transmitir al medio ambiente interior y exterior de las viviendas y otros usos residenciales niveles de ruido superiores a los máximos establecidos.

Será obligación del/de la titular proceder al cierre de la terraza en caso de que por parte de quien utilice la misma se produzcan molestias al vecindario, así como impedir que se saquen las consumiciones fuera de la zona autorizada para la terraza.

No se instalará en las terrazas ningún tipo de aparato musical, ni altavoces, etc. Quedan terminantemente prohibidas las actuaciones en directo, así como la instalación de equipos audiovisuales o la emisión de audio y vídeos en los espacios de la terraza, salvo

baimen zehatza eta idatzia eman ez duenean.

Terrazak eta beren elementuak instalatzeak eta desmuntatzeak inguruko bizilagunei zaratengatiko eragozpenik ez sortzeko behar adina bitarteko jarriko da. Mahai, aulki eta gainerako elementu guztiek hanketan gomak edo neopreno-zatiak izango dituzte arrastaka eramatean zarata gutxiago ateratzeko, ordenantza honen 12. artikuluan adierazi bezala.

2.- Altzariak kentzea.
Arau orokor gisa, eta ordenantza honen 8.1 artikuluak xedaturikoari jarraiki, establezimenduaren titularrak mahaiak, aulkiak eta aipaturiko 8.1. artikuluak ezartzen ez dituen elementuak kendu beharko ditu egunero; horiek establezimenduaren barnean edo beste lokal batean utziko dira lanaldi bakoitza amaitzean eta okupatutako espazioa garbitasun-baldintza ezin hobeetan utzi beharko da.

Aulki pilak, mahaiak, barrikak, eguzkitakoak edo terrazako beste edozein elementu osagarri ezingo dira inolaz ere bide publikoan bildu, bizilagunen eta orokorrean herritarren pasoa galarazi edota kale garbiketa lanak galarazi edo kaltetu egiten direnean.

Terrazako altzariak biltegiratzeko behar adina tokirik ez izatea nahikoa arrazoi izan daiteke terraza jartzeko lizentzia ukatzeko edo mugatzeko.

3.- Garbiketa.
Jardueraren titularrek gutxienez egunean birritan garbitu beharko dute terrazak okupatzen duen eremua, eta, nolanahi ere, terraza itxi eta hura erretiratu ondoren.

Mahaiek hautsontziak eduki behar dituzte, eta hautsontzi horiek ura eduki behar dute. Instalazioan zaborrontziak jarri beharko dira.

4.- Erantzukizun zibileko asegurua.
Establezimenduko titularrak izan behar duen erantzukizun zibileko eta suteetako aseguru-polizak terrazaren funtzionamenduak eragin ditzakeen izaera bereko arriskuak estali beharko ditu.

autorización expresa y por escrito del Ayuntamiento.

Se dispondrán los medios para que la instalación y el desmontaje de las terrazas y sus elementos no generen molestias por ruidos al vecindario. Los apoyos en el suelo de las mesas, sillas, taburetes y demás elementos irán provistos de gomas o neoprenos para minimizar el ruido por arrastre de las mismas, tal como se indica en el artículo 12 de la presente Ordenanza.

2.- Retirada del mobiliario.
Como norma general, y en las condiciones establecidas en el artículo 8.1 de esta ordenanza, la persona titular del establecimiento queda obligada a la retirada diaria de las mesas y sillas y todos los elementos no contemplados en el artículo 8.1. citado, que siempre serán retirados al interior del establecimiento u otro local, al final de cada jornada, debiendo dejar el espacio ocupado en perfectas condiciones de limpieza.

En ningún caso podrán almacenarse en la vía pública pilas de mesas, sillas, barricas, sombrillas o cualquier otro elemento auxiliar de la terraza, cuando se limite el paso del vecindario o de las personas en general o se impida o dificulte la prestación del servicio de limpieza viaria.

La inexistencia de espacio suficiente para almacenar el mobiliario de la terraza podrá ser causa suficiente para la denegación de la licencia de instalación o su limitación.

3.- Limpieza.
Los/as titulares de la actividad deberán limpiar la zona utilizada por la terraza un mínimo de dos veces al día y, en todo caso, una vez retirada la instalación al término de su horario de funcionamiento.

Las mesas deberán contar con ceniceros, que deberán contener agua, y en la instalación se deberán colocar papeleras.

4.- Seguro de responsabilidad civil.
La póliza de seguro de responsabilidad civil e incendios de que deba disponer la persona titular del establecimiento deberá extender su cobertura a los posibles riesgos de igual naturaleza que pudieran derivarse del funcionamiento de la terraza.

## LAUGARREN KAPITULUA.- DENBORALDIA ETA ORDUTEGIAK

### 16. Artikulua.- Denboraldia.

1.- Terrazak urte osoan jar daitezke eta lizentzia hilabete bat edo gehiagorako edo hurrengo artikuluak xedatutako denboraldi osorako eman ahal izango da.

2.- Denboraldi hauek aurreikusten dira:

a).- Negualdia: urtarrilaren 1etik martxoaren 15 arte eta azaroaren 15etik abenduaren 31 arte.

b).- Udaldia: martxoaren 16tik azaroaren 14 arte.

### 17. Artikulua.- Ordutegiak.

1.- Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 35.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, terrazak jartzeko ordutegia honakoa izango da:

a).- Negualdian:

- Igandetik ostegunera: 08:00etatik 23:00ak arte.
- Ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetan: 08:00etatik 24:00ak arte.

b).- Udaldian:

- Igandetik ostegunera: 08:00etatik 24:00ak arte.
- Ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetan: 08:00etatik 01:00ak arte.

c).- Herriko jaietan, Aste Santuan, Inauterietan eta Gabonetan: baimendutako ordutegia ordu betez luzatuko da.

Hori dena, Udalak berak edo Autonomia Erkidegoak, bakoitzak bere eskumenez baliatuta, sar ditzaketen aldaketen kalterik gabe.

2.- Terraza jartzeko ordutegia amaitu ondoren elementu guztiak bide publikotik jaso eta horretarako jarritako eremu pribatuan gorde beharko dira, hogei minutuko epean.

3.- Oinezkoentzako kaleetan, baimendutako terrazak ezingo dira jarri zamalanetarako ezarritako ordutegia amaitu arte, ordenantzaren 5.

## CAPÍTULO IV.- TEMPORADA Y HORARIOS

### Artículo 16.- Temporada.

1.- Se admite la instalación de terrazas y veladores durante todo el año y la licencia podrá concederse por uno, varios o la totalidad de los meses que comprenden las temporadas establecidas en el apartado siguiente.

2.- Se distinguen las siguientes temporadas:

a).- Período invernal: De 1 de enero a 15 de marzo y de 15 de noviembre a 31 de diciembre.

b).- Período estival: De 16 de marzo a 14 de noviembre.

### 17.- Horarios.

1.- De acuerdo con lo establecido en el artículo 35.2 del Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas, el horario autorizado para la instalación de la terraza será el siguiente:

a).- Período invernal:

- De domingo a jueves: De 08:00 horas hasta las 23:00 horas.
- Viernes, sábados y vísperas de festivo: De 08:00 horas las 24:00 horas.

b).- Período estival:

- De domingo a jueves: De 08:00 horas hasta las 24:00 horas.
- Viernes, sábados y vísperas de festivo: De 08:00 horas la 1 de la madrugada.

c).- Fiestas locales, Semana Santa, Carnavales y Navidades: Se ampliará una hora el horario autorizado.

Todo ello sin perjuicio de las modificaciones que pudieran introducirse por el Ayuntamiento o la Comunidad Autónoma en el ejercicio de sus competencias.

2.- Finalizado el horario de funcionamiento de la terraza, deberán retirarse todos los elementos de la vía pública, dejando la estructura mínima, tal y como se recoge en la presente ordenanza, y depositarse en el espacio privado habilitado al efecto, para lo que se concede un tiempo de 20 minutos.

3.- En las zonas peatonales no podrá procederse a la instalación de las terrazas autorizadas hasta que no haya finalizado el horario de carga y descarga,

artikuluan araututakoaren arabera.

### HIRUGARREN TITULUA.- SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSLEKUAK ETA BESTE ELEMENTU OSAGARRIAK.

**18. Artikulua.- Artikuluen salmenta automatikoa eta joko-makinak.**

Arau orokor gisa, debekatuta dago espazio publikoa okupatzea edozein motatako artikuluak saltzeko makina banatzaileak instalatuz.

Makina saltzaileak, kutxazain automatikoak, telefono publikoak eta espazio pribatuetan instalatuta dauden baina oinezkoek erabiltzeko eremuetatik irisgarriak diren antzeko elementuak baimendu ahal izateko, oztoporik gabeko aurrealdea izan behar dute, gutxienez 1,80 m-ko zabalerakoa.

Makina horiek pertsona guztiek erabiltzeko irisgarri egon beharko dute. Elementuaren diseinuak gurpil-aulki darabilen pertsona bat gerturatzea ahalbidetu beharko du. Gailu manipulagarriak 0,70 m eta 1,20 m arteko altueran egongo dira.

Jolas eta olgetako aparailuak jartzea, haurrentzako jokoak esaterako, salbuespen gisa baimendu ahal izango da horiek jarri nahi diren espazio publiko zehatzaren egiturak ahalbidetzen duenean eta ez badio oinezkoentzako gutxieneko 1,80 metroko pasaguneari oztoporik egiten.

**19. Artikulua.- Merkataritza-establezimenduak hedatzea.**

1.- Merkataritza-establezimenduen jarduera espazio publikora hedatu ahal izango da bide publikoa jarduera komertzial bati lotutako elementuekin okupatuz, esate baterako, salmentan dauden artikuluen erakus-mahaiekin, publizitate elementuekin eta abarrekin. Okupazio horiek Udalak aurrez baimendu beharko ditu, eta baimena ematerakoan aztertu beharko du dagokion espazio publikoak irisgarritasunaren baldintzak betetzen dituen; halaber, Udalak bermatu beharko du gutxienez 1,80 metroko zabalera duen oinezkoentzako ibilbide irisgarria egotea, baita zatiaren okupazioarekin erlazionatutako jarduera komertzialak nahitaezko udal baimena izatea ere.

2.- Salmentan dauden artikuluen erakus-mahaiak jartzeko baimena eman daiteke honako baldintzak

en los términos previstos en el artículo 5 de la Ordenanza.

### TÍTULO III.- EXPOSITORES DE PRODUCTOS EN VENTA U OTROS ELEMENTOS AUXILIARES

**Artículo 18.- Venta automática de artículos y máquinas recreativas.**

Como norma general, se prohíbe la ocupación del espacio público mediante la instalación de cualquier tipo de máquinas expendedoras de todo tipo de artículos.

Las máquinas expendedoras, cajeros automáticos, teléfonos públicos y otros elementos similares que estén instalados en espacios privados pero que sean accesibles desde áreas de uso peatonal sólo podrán autorizarse cuando cuenten con un área frontal libre de obstáculos de un mínimo de 1,80 m. de anchura.

El uso de estas máquinas deberá ser accesible a todas las personas. El diseño del elemento deberá permitir la aproximación de una persona usuaria de silla de ruedas. Los dispositivos manipulables estarán a una altura comprendida entre los 0,70 m y 1,20 m.

Los aparatos lúdico-recreativos, como juegos infantiles, podrán excepcionalmente autorizarse cuando la conformación del concreto espacio público donde pretenda instalarse así lo permita, por no interferir en paso peatonal mínimo de 1,80 metros.

**Artículo 19.- Extensiones de establecimientos comerciales.**

1.- Las extensiones de actividad de establecimientos comerciales del espacio público podrán consistir bien en la exposición de artículo de venta, de elementos de propaganda u otro tipo de ocupaciones de la vía pública vinculadas a la actividad comercial. Estas ocupaciones se sujetan a previa autorización por parte del Ayuntamiento, quien para otorgarla deberá ponderar si el espacio público afectado así lo permite, por razón de accesibilidad, garantizando un itinerario peatonal accesible de anchura mínima de 1,80 m. y que la actividad comercial a que se vincula la ocupación de la porción goce de la preceptiva autorización municipal.

2.- La autorización para la instalación de expositores de productos en venta quedará, en todo caso,

betez gero:

a).- Erakustegiak behar bezala pintatuta edo korrosiotik babestuta egongo dira, eta garbitasun-egoera ezin hobean. Gurpilak izango dituzte lekualdatzeko, bai eta finkatze-elementu nahikoak ere, immobilizazioa eta iraulketaren egonkortasuna bermatzeko. Debekatuta dago ainguraketak jartzea bai lurrean bai fatxadetan. Erakustegien egiturek ez dute ertz bizirik izango.

b).- Erakustegiek okupatutako espazioaren luzetarako garapenik handiena lokalaren fatxadari dagokiona izango da.

c).- Erakustegien zabalera, gehienez ere, metro batekoa izango da, lokalaren fatxadatik hasita.

d).- Oinezkoen zirkulazioa eta hiri-altzarien erabilera bermatzeko, ezin izango da hiri-altzaririk edo bestelako elementurik egon nahitaez bete beharreko zabalera librean.

e).- Erakusgai dauden produktuak jangarriak direnean, lurretik 0,75 metrora jarri beharko dira gutxienez; gainerako produktuetarako, gutxieneko altuera 0,60 metrokoa izango da.

f).- Erakustegiek nahi adina apal eduki ahal izango dituzte, 1,40 metroko altueraraino, baina erakustegiek eta merkantziek osatzen duten multzoa ez da 1,60 metrotik gorakoa izango.

g).- Debekatuta dago pisatzeko, neurtzeko edo kobratzeko elementurik bide publikoan jartzea.

3.- Jardueraren ordutegia amaitutakoan, bide publikoko elementu guztiak kendu eta horretarako prestatutako espazio pribatuan utzi beharko dira. Horiek okupatzen duten espazioa garbitasun-egoera onean geratu beharko da. Kutxa hutsak edo beste edozein hondakin ezin izango dira inolaz ere establezimendutik kanpo utzi.

4.- Kasu bakoitzean, dagokion bide publikoa okupatzeagatiko tasak aplikatuko zaizkie okupazio horiei.

## LAUGARREN TITULUA.- LIZENTZIAK IZAPIDETZEA ETA KUDEATZEA

**20. Artikulua.- Organo eskuduna.**

Lizentziak emateko organo eskuduna Andoaingo Udaleko Alkatea edo ahalmen hori eskuordetu duen organoa da.

sujeta a las siguientes condiciones:

a).- Los expositores estarán debidamente pintados o protegidos de la corrosión y en perfecto estado de limpieza. Estarán dotados de ruedas para su traslado y de elementos de fijación suficientes para garantizar la inmovilización y la estabilidad el vuelco de los mismos. Queda prohibida la instalación de anclajes tanto en el suelo como en las fachadas. Las estructuras de los expositores no tendrán cantos vivos.

b).- El máximo desarrollo longitudinal del espacio ocupado por los expositores será el correspondiente a la fachada del local.

c).- La anchura máxima de los expositores no podrá exceder de un metro, desde la fachada del local.

d).- Para garantizar adecuadamente la circulación de peatones y el uso del mobiliario urbano, no podrá haber ni mobiliario urbano ni otros elementos en la anchura libre de obligado cumplimiento.

e).- Cuando los productos expuestos sean comestibles, éstos se deberán colocar a no menos de 0,75 metros del suelo; para el resto de productos, la altura mínima será de 0,60 metros.

f).- Los expositores podrán estar provistos de cuantos estantes se deseen, hasta la altura de 1,40 metros, sin que el conjunto formado por los expositores y la mercancía supere los 1,60 metros.

g).- Queda prohibida la instalación de elementos de pesaje, medida o cobro en la vía pública.

3.- Finalizado el horario de funcionamiento de la actividad, deberán retirarse todos los elementos de la vía pública y depositarse en el espacio privado habilitado al efecto. El espacio ocupado por los mismos deberá quedar en buen estado de limpieza. En ningún caso se podrán dejar fuera del establecimiento las cajas vacías o cualquier otro tipo de residuo.

4.- Estas ocupaciones estarán sujetas a la correspondiente tasa por ocupación de la vía pública.

## TITULO IV.- TRAMITACIÓN Y GESTIÓN DE LICENCIAS

**Artículo 20.- Órgano competente.**

El órgano competente para la concesión de las licencias es la Alcaldía del Ayuntamiento de Andoain u

órgano en el que haya delegado dicha facultad.

**21. Artikulua.- Aurrez lizentzia lortu beharra.**

1.- Ordenantza honek arautütako elementuen instalaziorako dagokion udal lizentzia lortu beharko da.

2.- Jarraian aipatzen diren kasuetan dauden instalazioei ez zaie udal baimenik eskatuko:

a).- Udal emakida administratiboaren babesean egindako aktibitateen osagarri direnean, herri jabetasun eta ondare jabetza direnetan kokaturikoak izateagatik.

b).- Behin-behineko aktibitateak, esaterako, herriko jaiak direnean, baina beti ere dagokion udal organo eskudunak ezarritakoa bete ondoren.

**Artículo 21.- Necesidad de obtención de previa licencia.**

1.- La instalación de los elementos objeto de la presente ordenanza queda sujeta a la obtención de la previa autorización municipal.

2.- No se necesitará autorización municipal para aquellas instalaciones que se encuentren en alguno de los siguientes supuestos:

a).- Cuando sean complementarias de actividades desarrolladas al amparo de una concesión administrativa municipal, por estar enclavadas en bienes de dominio público o patrimoniales.

b).- Actividades temporales, ejercidas con motivo de actos festivos populares, dentro del calendario y formas establecidas por el órgano municipal competente.

**22. Artikulua.- Prozedura.**

1.- Instalazio berria egiteko edo dagoeneko emanda dagoen lizentzia bat aldatzeko aurkeztuko diren lizentzia eskaerak dokumentu hauekin batera aurkeztu beharko dira:

a).- Establezimenduaren funtzionamendu-lizentziaren fotokopia edo hori emateko espedientearen erreferentzia.

b).- Jarri nahi diren hiri-altzarien elementu homologatuen zerrenda, horien kopurua espresuki adieraziz.

c).- Lokalaren kokagunea zehazten duen planoa 1:100 eskalan, ez txikiagoan, ondo zehaztuz terrazak okupatzeko espazioa, mahaitxo, aulkien eta beste elementu osagarriak. Aipatu beharko dira, halaber, inguruan izan daitezkeen edozein elementu (trafiko seinaleak, zuhaitzak, bankuak, hiri-altzariak, e.a.) eta, baita ere, kaltetuak gerta litezkeen udal zerbitzuak (ura, saneamendua, gasa, e.a.)

d).- Hala behar izanez gero, ondoko lokaletako titularren baimena.

e).- Terrazako elementuak biltegiratzeko dagoen espazioaren justifikazioa.

f).- Terrazan berogailuak jarriz gero, ordenantza honen 11.2.d). artikuluan eskatutako itzalgailuen mantenimendu-kontratua aurkeztu beharko da.

**Artículo 22.- Procedimiento.**

1.- Las solicitudes de licencia que se presenten para una nueva instalación o para la modificación de una licencia ya concedida irán acompañadas de la siguiente documentación:

a).- Fotocopia de la licencia de funcionamiento del establecimiento o referencia a su expediente de concesión.

b).- Relación de los elementos homologados de mobiliario urbano que se pretendan instalar, con indicación expresa de su número.

c).- Plano de emplazamiento a escala no inferior a 1:100, con detalle suficiente de la superficie ocupada por la instalación, así como distribución de mesas y sillas y demás elementos auxiliares. Deberá indicarse, asimismo, la longitud de la fachada y del ancho de los espacios libres resultantes, reflejando, además, la existencia de cualquier elemento urbano (señales de tráfico, árboles, bancos, columnas, mobiliario urbano, etc.) y posibles afecciones a servicios municipales (aguas, saneamiento, gas, etc.).

d).- Acreditación de que se dispone de autorización de los locales adyacentes en los supuestos en los que ésta se requiera.

e).- Justificación del espacio con que cuenta para almacenar los elementos de la terraza.

f).- En caso de que se instalen estufas en la terraza, se deberá aportar el contrato de mantenimiento de los extintores exigidos en el artículo 11.2.d) de la presente ordenanza.

2.- Titulartasuna aldatu edo berritu bahi bada, edo oro har, baimenaren edukian aldaketa handirik sorrarazten ez duen eragiketaren bat egin nahi bada, interesdunaren betebehar bakarra izango da aldaketa horren berri formalki ematea, Erregistro Orokorrean aurkeztu beharreko eskabide batez.

2.- En los supuestos en los que se pretenda un cambio de titularidad, renovación o en general todas aquellas circunstancias que no conlleven un cambio sustancial en el contenido de la autorización, el/la interesado/a sólo vendrá obligado/a a comunicar formalmente dicho cambio, mediante instancia a presentar en el Registro General.

**23. Artikulua.- Erabakia.**

Eskaera ordenantza honek eskatutako baldintzetan aurkeztuta, eta txosten teknikoa egin ondoren, organo eskudunak ebatziko du legeak ezarritako epearen barnean.

Lizentzia-dokumentuan finkatuko dira instalazioaren eta elementu osagarrien, okupatu beharreko azaleraren, mahaien eta aulkien kopuruen, indarraldiaren eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako baldintzak.

Dagokion udal organoak lizentzia ez emateko eskubidea izango du, interes publikoak, bide segurtasunak, herri lanek edota beste edozein egoerak horrela eskatuz gero.

Eskatutako lizentzia ez balitz egokitzat hartuko edo eman beharreko baimenak eskatutakoaren aldaketa ekarriko balu, Udalak epe bat irekiko du eskatzaileak egokiak iruditzen zaizkion alegazioak aurkez ditzan.

Lizentzia bertan behera geratuko da, eskatzaileak jabetza publikoa okupatzeagatik dagokion tasa edo arautuakoa ez betetzeagatik jarritako isunak ez ordaintzeagatik.

Lizentzian jaso ahal izango da udal-zerbitzu publikoak baimendutako gehieneko okupazio-azalera mugatzea. Ezingo da muga hori gainditu, eta hori horrela izatea establezimenduaren titularraren erantzukizuna izango da.

Beti ere ulertuko da lizentziak jabetza eskubidea salbu utzita eta beste inoren eskubiderik kaltetu gabe eman direla. Nolanahi ere, ezingo da lizentzia hauen arrazoi edo aitzakiaz baliatu aktibitateen jardunean onuradunak sortutako erantzukizun zibil edo penalak saihestu edo gutxitzeko.

**Artículo 23.- Resolución.**

Formulada la petición en los términos exigidos en la presente Ordenanza, y previo informe técnico, se resolverá por el órgano competente en los plazos legalmente establecidos.

En el documento de la licencia se fijará las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, número de mesas y sillas, período de vigencia y demás particularidades que se estimen necesarias.

El órgano competente podrá denegar la licencia en aquellos casos que así lo exija el interés público, por razón del trazado, situación, seguridad viaria, obras públicas o cualquier otra circunstancia.

Si no se considerase oportuna la concesión de la licencia solicitada o si la autorización a conceder supusiera una variación con respecto a lo solicitado, el Ayuntamiento dará audiencia a la persona solicitante, a fin de que pueda alegar lo que estime oportuno.

El impago de la tasa correspondiente a la ocupación del dominio público o de las multas impuestas con arreglo a la presente ordenanza motivará la denegación de la licencia.

En la licencia se podrá establecer la obligación de que los servicios técnicos municipales delimiten la superficie máxima de ocupación autorizada. Dicha delimitación no podrá ser rebasada, siendo responsable de su cumplimiento la persona titular del establecimiento.

Las licencias se entenderán siempre otorgadas, salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceras partes, no pudiendo ser invocadas para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido la persona beneficiaria en el ejercicio de sus actividades.

**24. Artikulua.- Tasa eta bermea.**
1.- Lizentziaren titularrak dagokion tasa ordaindu beharko du indarreko Zerga Ordenantza betez.
2.- Honako ordenantza honetan ezarritako betekizunak beteko direnaren bere gisa, terrazak jartzean, lizentziaren titularrak tasa ordaintzeaz gain, 300,00 euroko bermea ordaindu beharko du esku diruz. Egindako bermeak aurretiko baja eskakizunarekin itzuliko dira eta betekizun guztiak bete izana egiaztatu eta gero.

**Artículo 24.- Tasa y fianza.**
1.- La persona titular de la licencia deberá abonar la tasa correspondiente conforme a la Ordenanza Fiscal vigente.
2.- En garantía del cumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Ordenanza, en el caso de instalación de terrazas, la titular de la licencia deberá depositar, junto con el pago de la tasa, una fianza en metálico por importe de 300,00 euros. Las fianzas depositadas se devolverán previa solicitud de baja y una vez comprobado el cumplimiento de todas las obligaciones.

**25. Artikulua.- Baliogabetzea.**
Edonola ere, ordenantza honetan aurreikusitako edozein instalazio lurzoru publikoan jartzeko lizentziak prekarioan emango dira, bertan adierazitako preskripzioak eta neurri zuzentzaileak betetzearen mende egongo dira eta horiek betetzen ez badira baliogabetu egingo dira. Baliogabetzea erabakitzen bada, une horretan bertan eskatuko zaio instalazioaren titularrari adieraziko zaion epean kentzeko, horrela egiten ez badu udal-zerbitzuek bere kontura egingo dutela ohartaraziz.

**Artículo 25.- Revocación.**
En todo caso, las licencias que se otorguen para la implantación de cualquier instalación prevista en esta Ordenanza sobre suelo público lo será a precario y condicionada al cumplimiento de las prescripciones y medidas correctoras establecidas en la misma, pudiendo disponerse su revocación en caso de incumplimiento. De acordarse ésta, se requerirá en el mismo acto a quien ostente la titularidad de la instalación para que proceda a su retirada en el plazo que se indique, con apercibimiento de que, en caso de incumplimiento, se dispondrá la realización a su costa por los servicios municipales.

## V TITULUA.- ZEHATZEKO ARAUBIDEA

**26. Artikulua.- Lizentziarik gabeko instalazioak**.
Udalaren jabari publikoko lursailetan nahitaezko lizentziarik gabe jartzen diren instalazioak berehala kenduko dituzte udal zerbitzuek, interesatuari alkateak emandako jakinarazpenaz gain inolako beste abisurik eman gabe, eta alkateak ondasunak eta horien erabilera komun orokorra ofizioz berreskuratzeko ahalmena erabiliko du. Udal zerbitzuek exekutatuko dute ebazpena, eta aipatu jakinarazpena, exekutatzen ari den momentuan bertan egin ahal izango dute.

Artikulu honetan xedatutakoaren arabera kendutako elementuak gehienez sei hilabetez jasoko dira udal biltegian. Epe hori bukatuta interesdunak eraman ez baditu, Udalak suntsitu, saldu edo laga ahal izango ditu.

## TÍTULO V.- RÉGIMEN SANCIONADOR

**Artículo 26.- Instalaciones sin licencia**.
Las instalaciones sujetas a esta Ordenanza que se implanten sobre terrenos de dominio público municipal sin la preceptiva licencia serán retirados de modo inmediato por los servicios municipales sin más aviso que la notificación a la persona interesada de la orden de dictada por el órgano competente, el cual actuará en ejercicio de las potestades de recuperación de oficio de los bienes y de su uso común general. Dicha notificación podrá practicarse en el mismo acto de la ejecución material de la resolución, que se llevará a efecto por los servicios municipales.

Los elementos que hayan sido retirados por los servicios públicos municipales no podrán permanecer almacenados durante un plazo superior a 6 meses, transcurrido el cual sin que por parte de la persona requerida se hayan retirado, el Ayuntamiento podrá proceder a su destrucción, venta o cesión.

**27 Artikulua.- Baimendutako elementuak edo azalera gainditzea.**
Aurreko artikuluan ezarritakoa hiri altzarien elementuei ta beste edozeini aplikatu ahal izango zaie, dagokion baimenean jasota ez dauden edo baimendutako baldintzak gainditzen dituzten soinua eta/edo irudia erreproduzitzeko ekipamenduak eta joko-makinak edo makina banatzaile automatikoak barne. Hori guztia, emandako lizentzia edo dagokion berritzea baliogabetzeko aukerari kalterik egin gabe.

**Artículo 27.- Exceso de elementos o superficie sobre lo autorizado.**
Lo dispuesto en el artículo anterior será aplicable a los elementos de mobiliario urbano y cualquier otro, incluidos los equipamientos de reproducción sonora y/o visual y máquinas de juego o expendedoras automáticas, que no estén contempladas en la correspondiente autorización o que excedan de los términos permitidos, ello sin perjuicio de la posible revocación de la licencia otorgada o de la denegación de la renovación correspondiente.

**28 Artikulua.- Arau-hausteen sailkapena.**
Ordenantza honetako arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

1.- Arau-hauste arinak dira:
- a).- Instalazioaren edo bere inguruaren apaindura edo garbitasun falta.
- b).- Hasierako zein amaierako ordutegia ez betetzea, ordu erditik beherako aldearekin.
- c).- Lizentzia dokumentua eta xehetasun-planoa ez aurkeztea eskatzen duten agintaritza-agenteei edo funtzionario eskudunei.
- d).- Terrazen zonan edo bide publikoko beste edozein espazio okupatuan produktuak, ontziak, edo hondakinak biltegiratzea edo pilatzea.
- e).- Ordenantza honetan aurreikusitako beste edozein betebehar ez betetzea, arau-hauste larria edo oso larria ez bada.

2.- Arau-hauste larriak dira:
- a).- Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin egitea.
- b).- Hasierako zein amaierako ordutegia ez betetzea, ordu erdi eta ordubete arteko aldearekin.
- c).- Lizentzian aurreikusten ez diren hiri-altzarien elementuak jartzea edo altzari horien baimendutako kopuruak gainditzea.
- d).- Baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea edo beste mugatze baldintza batzuk ez betetzea.
- e).- Nahitaezko asegururik ez izatea.
- f).- Instalazioaren funtzionamenduaren ondorioz bizilagunei edo oinezkoei enbarazu egiaztatuak eragitea.
- g).- Baimendu gabeko musika-instrumentu zein ekipamenduak edo bestelako instalazioak jartzea.
- h).- Baimendutako elementuak, egunero kentzeko betebeharra, ordenantza honetan xedatzen den moduan, ez betetzea.

**Artículo 28.- Clasificación de las infracciones.**
Las infracciones de esta Ordenanza se clasifican en leves, graves y muy graves.

1.- Sin infracciones leves:
- a).- La falta de ornato o limpieza de la instalación o de su entorno.
- b).- El incumplimiento del horario de inicio o de cierre en menos de media hora.
- c).- La falta de presentación del documento de licencia y del plano de detalle a los/as agentes de la autoridad o funcionarios/as competentes que lo requieran.
- d).- Almacenar o apilar productos, envases o residuos en la zona de terraza o en cualquier otro espacio ocupado de la vía pública.
- e).- El incumplimiento de cualquier otra obligación prevista en esta Ordenanza que no sea constitutiva de infracción grave o muy grave.

2.- Son infracciones graves:
- a).- La comisión de tres infracciones leves en 1 año.
- b).- El incumplimiento del horario de inicio o de cierre en más de media hora y menos de una hora.
- c).- La instalación de elementos de mobiliario urbano no previstos en la licencia o en número mayor de los autorizados.
- d).- La ocupación de superficie mayor a la autorizada o el incumplimiento de otras condiciones de la delimitación.
- e).- La carencia de seguro obligatorio.
- f).- La producción de molestias acreditadas al vecindario o transeúntes derivadas del funcionamiento de la instalación.
- g).- La instalación de instrumentos o equipos musicales u otras instalaciones no autorizadas.
- h).- El incumplimiento de la obligación de retirar los elementos autorizados, en los términos establecidos en la presente ordenanza, diariamente.

3.- Arau-hauste oso larriak dira*:*
a).- Urtebeteko epean hiri arau-hauste larri egitea.
b).- Terrazak edo ordenantza honetan araututako bestelako elementuak baimenik gabe edo baimendutako epetik kanpo jartzea.
c).- Instalazioa berehala kentzeko agindua ez betetzea.
d).- Instalazioaren funtzionamenduaren ondorioz bizilagunei edo oinezkoei enbarazu egiaztatuak eragitea, ordenantza honetan ezarritako baldintzak behin eta berriro eta modu larrian ez betetzeagatik.
e).- Espresuki baimendu gabeko ikuskizun edo emanaldiak egitea.
f).- Funtzionarioei edo agintaritza-agenteei begirunerik ez izatea, beren karguari hala dagokiolako esku hartzen dutenean, edo beren ikuskatze-lanak ukatzea edo oztopatzea.
g).- Hasierako zein amaierako ordutegia ez betetzea, ordubetetik gorako aldearekin.

3.- Son infracciones muy graves:
a).- La comisión de tres infracciones graves en un año.
b).- La instalación de terrazas u otros elementos regulados en esta Ordenanza sin autorización o fuera del período autorizado.
c).- El incumplimiento de la orden de suspensión inmediata de la instalación.
d).- La producción de molestias graves al vecindario o transeúntes derivadas del funcionamiento de la instalación por incumplimiento reiterado y grave de las condiciones establecidas en esta ordenanza.
e).- La celebración de espectáculos o actuaciones no autorizadas de forma expresa.
f).- La falta de consideración o los/as funcionarios/as o agentes de la autoridad, cuando intervengan por razón de su cargo, o la negativa u obstaculización a su labor inspectora.
g).- El incumplimiento del horario de inicio o de cierre en más de una hora.

**29. Artikulua.- Zehapenak.**
Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteek zehapen hauek ekarriko dituzte:
a).- Arau-hauste arinak 300 eurora arteko isunarekin zigortuko dira.
b).- Arau-hauste larriak 301 eta 600 euro arteko isunarekin zigortuko dira, eta instalazioa ezingo da jarri, gehienez, hilabete bateko epean.
c).- Arau-hauste oso larriak 601 eta 1.000 euroko isunarekin zigortuko dira, lizentzia baliogabetuko da eta instalazioa berehala erretiratuko da.

Aurreko atalean zehazturiko lizentziaren baliogabetzeak eta instalazioa erretiratzeak berekin ekarriko du establezimendua desgaitzea ordenantza honetan araututako etorkizuneko baimenak lortzeko, gehienez ere 2 urteko epean.

**Artículo 29.- Sanciones.**
La comisión de las infracciones previstas en esta Ordenanza llevará aparejada la imposición de las siguientes sanciones:
a).- Las infracciones leves se sancionarán con multa de hasta 300 euros.
b).- Las infracciones graves se sancionarán con multa entre 301 y 600 euros y la retirada de la instalación por período máximo de un mes.
c).- Las infracciones muy graves se sancionarán con multa de 601 a 1.000 euros y la revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación.

La revocación de la licencia y la retirada de la instalación previstas en el apartado anterior, llevarán consigo la inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas en esta Ordenanza durante el plazo máximo de 2 años.

**30. Artikulua.- Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak.**
Zehapenak modulatzeko ondorengoak hartuko dira kontuan: intentzionalitaterik edo errepikatzerik izan den, baita sortutako kalteen izaera, urtebetean izaera bereko beste arau-hauste bat egin izana (ebazpen irmo bidez horrela deklaratu denean) eta arau-haustea egiteagatik lortutako irabazia ere.

**Artículo 30.- Circunstancias modificativas de la responsabilidad**.
Para la modulación de las sanciones se atenderá a la existencia de intencionalidad o reiteración, naturaleza de los perjuicios causados, reincidencia por la comisión en el término de un año de otra infracción de la misma naturaleza cuando así haya sido declarado por resolución firme y al beneficio obtenido con su

realización.

**31. Artikulua.- Prozedura.**
Zehapenak jartzeak dagokion espedientea izapidetzea eskatuko du, eta izapidetzea Herri Administrazioen Jardunbide Administratibo Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Sektore Publikoko Errejimen Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/201 Legeak eta Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak ezarritakoarekin bat egingo da.

Espedienteari hasiera emateko erabakiak gerora eman litezkeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak izan daitezkeen behin-behineko neurriak hartzea agin dezake, legez kanpoko instalazioak kentzea edo horien funtzionamendua etetea, besteak beste.

**Artículo 31.- Procedimiento**.
La imposición de sanciones requerirá la instrucción del correspondiente expediente, que será tramitado de conformidad con lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; Ley 40/2015 de 1 de octubre, Régimen Jurídico del Sector Público, y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca.

El acuerdo de iniciación podrá ordenar la adopción de medidas provisionales que resulten necesarias para garantizar la eficacia de la resolución que pudiera recaer, tales como la retirada de las instalaciones ilegales o la suspensión de su funcionamiento

**XEDAPEN IRAUNKORRA.**
Terrazak jartzeko emandako baimenak pixkanaka ordenantza honetan ezarritako baldintzak tekniko eta publizitate-baldintzetara egokitzeko, 3 hilabeteko epea ematen da, ordenantza indarrean sartzen den egunetik. Epe horretatik aurrera, terraza osatzen duten elementu guztiak eta ordenantza honetan araututakoa bete beharko dute.

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA.**
A fin de permitir una paulatina adaptación de las autorizaciones concedidas de terrazas y veladores a las condiciones técnicas y de publicidad establecidas en la presente ordenanza, se establece un plazo de adaptación de 3 meses, a contar desde su entrada en vigor. Una vez finalizado dicho plazo, todos los elementos componentes de las terrazas y demás elementos regulados en esta ordenanza deberán cumplir las condiciones previstas en la misma.

**AZKEN XEDAPENA.**
Ordenantza hau indarrean jarriko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 eguneko epean, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluaren arabera.

**DISPOSICIÓN FINAL.**
La presente Ordenanza entrará en vigor una vez transcurridos 15 días de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, tal y como se refiere el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**
Indargabetu egiten da bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal Ordenantza Arautzailea, Udalbatzak 2008ko urtarrilaren 30ean onarturikoa eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2008ko apirilaren 4ko 64 zenbakian argitaratutakoa. Aipatu ordenantza Udalbatzak 2009ko azaroaren 26an hartutako erabakiaren bitartez aldatu zuen, erabaki hori 2010ko urtarrilaren 28ko 17 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik.

**DISPOSICIÓN DEROGATORIA.**
Queda derogada la Ordenanza Municipal reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores, aprobada por el Pleno de la Corporación en sesión celebrada con fecha 30 de enero de 2008 (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 64 de 4 de abril de 2008), modificada mediante acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación con fecha 26 de noviembre de 2009 (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 17 de 28 de enero de 2010).

Andoainen, a 2021ko uztailaren 13an.